

Nafarroako Esaera Zaharrak. Altsasu, Etxarri-Aranatz, Irurtzun.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Altsasu, Etxarri-Aranatz, Irurtzun.

- 1 *Ago, ago; ire leurriko (neurriko) zapata opatuko duk ik ere.*
Norbaitez parra egiten duenari esana.
- 2 *Aittu ttu beriak (entzun ditu bereak)*
merezi zituenak entzun ditu.
- 3 *Aitzera txarrekoa da.*
Esaten zaiona ez aditua egiten du.
- 5 *Aoa leurrie daukie.*
Nai duten guzia emanaz daukate.
- 30 *Eguzkie kuriketan dabil.*
Sartu-ateran dabil.
- 32 *Eskuko beatzak ere ez zitun Jainkoak berdiñak egin.*
Ezta gizonak ere buruz ta indarrez berdiñak.
- 56 *Kandelera otz, joan da neguaren biotz: Kandelera bero, negua da gero.*
- 60 *Lapurdin ez da beti pesta.*

Esaera au beste aldeko Euskalerritik etorria dela dirudi. Bein batez, pillota-partidu gaitza jokatu zuten bi pillotari famatuk; bata, Azantza, Laphurtarra zen; bestea, Perkain, Nafartarra. Eta Laphurtarrak galdu. Orduan Otxalde nafartar bertsolari bikaiñak koplak atera zituen, Laphurtarrei axeka ta irri egiteko: Lengo aldi batean zuek irabazi eta gure diruak eraman zintuzten; gaur guk irabazi dugu, eta zuen diruak guretzat. Orain kito gera. Kopla aietan daude bi bertso auk: Galdu duen gaixoak buruan har beza, ez dela egun oroz Laphurtarren besta.

Ortik sortua ote da esaera au? Baiña nola edo zer bidez etorri ote da andik onaraiño? Nola-nai dela, Arakil-en Lapurdi ta lapur itzekin itz-jokua egiñez, auxe adiarazi nai dute: Lapurreta egin ondoko pestak gutxi irauten diola lapurrari.

- 58 *Lan zion landan; biar san Bartolome, ta soñekoa dendan.*
Pestarako prestaerarik egin gabe oraiño!
- 90 *Udan eperrak jan nai dittuenak, neguan txakurrak manten txela (ditzala).*